

ELGOIBARKO IZARRA

ETORKIZUNARI BEGIRA

60. urteurrenaren atarian

(eztabaidarako dokumentua)

SARRERA MODUAN

ELGOIBARKO IZARRAK 60 urte beteko ditu datorren urtean (2023ko martxoan). Aitzakia polita begitandu zaigu bi konturi heltzeko:

- 60. urteurrena ospatzeko.
- Elkarteak hurrengo 5 urteetan egin behar duena erabakitzeko.

60. urteurrenari dagokionez, ez dugu uste zeruak eta lurrak bat egin behar dutenik, baina 60. urteurrena ospatu egin behar dugula uste dugu. Erabakiko dugu zelan.

Hala ere, bigarren kontua da, batez ere, interesatzen zaiguna. Elgoibarko Izarrak hurrengo urteetan egin behar duena pentsatu eta erabakitzeko aitzakia polita begitantzen zaigu 60. urteurrena.

Azken 30 urteetako lanaren balorazioa egin berri dugu. Bazkide batzuek (25 inguru) eta beste euskaltzale batzuek baloratu dute elkarteak azken 30 urteetan egindakoa, eta, gainera, esan dute haien ustez elkarteak zer egin beharko lukeen etorkizunean.

Egiteko moduari dagokionez, bazkideek eta herritarrek esaten digutena aintzat hartuta erabaki behar dugu zelan egin. Gurea herrigintza bada, eta bada, herritarrekin batera erabaki eta egin behar dugu, bazkideekin eta bazkide ez direnekin.

Azken 30 urteetan egin dugun lanak emandakoaren sintesi txiki batekin ekingo diogu dokumentuari. Horren ondoren, hurrengo bost urteetarako helburuen, egitekoen eta egiteko moduen proposamena ikusiko dugu.

OHARRA: dokumentuaren amaieran 2022ko urtarrilean Euskaltzaleon Topaguneak antolatutako Topaldian Elgoibarko Izarraren etorkizunaren gainean irakurritako testua sartu dugu.

A) EGIN ETA LORTU DUGUNAREN SINTESI TXIKI BAT

Etorkizuna irudikatzeko dokumenta da hau, baina, motz-motz bada ere, azken 30 urteotan egin dugun lanak emandakoa ekarriko dugu hona, etorkizunari bete-betean heldu aurretik. Esan 40 lagunen iritzi-ekarpenekin osatu dugula dokumentua.

Zer egin dugu azken 30 urteetan?

- Elkarte moduan egin eta eragin nahi genuela erabaki, Elgoibarko Izarra berregituratu eta berrantolatu, eta lan-dinamika berria martxan jarri.
- Landu ditugun jardunbideak:
 - Erabilera lantzeko 24 proiektu eta programa ezberdin.
 - Motibazioa edo kontzientzia lantzeko 18 ekimen.
 - Jakintza eta formazio lantzeko 8.
 - Nazio ikuspegia lantzeko beste 8.
 - Identitatea lantzeko 6 ekimen.
 - Gure aurrekoak ez ahazteko 6 ekimen.
 - Biltze- eta balorazio-lanak egiteko 4 lan.
 - Zerbitzugintzari lotutako 20 zerbitzu-lan.

Zer lortu dugu?

- Elkarte ez desagertzea eta berrantolatzea.
- Euskalgintzan jarduteko diskurtso eta estilo berria martxan jartzea.
- Erabileraren garrantzia azpimarratzea.
- Herri mailako hainbat funtzio eta sektoretan eragitea.
- Jakintza eta formazioa zabaltzea herritarren artean.
- Gure aurrekoak gogora ekartzea (edo ez ahaztea).
- Euskalgintzako erreferente izatea, herrian eta herritik kanpo.
- Autonomia gradu on bat izan eta dezenteko garapena lortzea.

Zer ez dugu lortu?

- Lan profesionala eta militantea orekatzea.
- Euskararen erabilera arlo informalean areagotzea.
- Hezitzaileak elkartera erakartzea.
- Komunikazioarekin eta diskurtsoarekin asmatzea.

B) HELBURUAK, EGITEKOAK ETA EGITEKO MODUAK

Hona hemen Elgoibarko Izarrak hurrengo urteetarako izan beharko lituzkeen helburuen, egitekoen eta egitekoko moduen proposamena.

HELBURUA:

Elgoibarren euskararen erabilera areagotzea da Elgoibarko Izarraren hurrengo urteetako misioa. Alabaina, euskararen erabilera non areagotu nahi dugun zehaztu behar dugu. Zein sektoretan, zein adin-tartetan, zein ...

EGITEKOAK:

Hauek dira hurrengo urteetarako proposatzen ditudan egitekoak:

- Elgoibarko euskalgintza eta kulturgintza artikulatu.
- Euskara dakitenen artean euskaldun izateko nahia elikatu:
 - Kulturgintza eta euskalgintza batera eta norabide berean landuz.
 - Kontzientzia eta ahalduntzea landuz: formazioa, dibulgazioa eta ahalduntze-eskolak.
- Elgoibarko Izarraren komunikazio proiektua prestatu.
- Elkartearen diskurtsoa idatzi eta jendarteratu.

Proiektuak eta programak:

Hurrengo urteetarako erabilera-proiektuak eta -programak erabaki:

- Egungo proiektuen azterketa egin.
- Proiektu edo jardunbide berriak erabaki (1).
- Erabilera-programak eta zerbitzugintza bereiztu.

(1) *Hauek dira bazkideek gehien proposatu dituzten jardunbide berriak:*

- a. *Euskaratik aparte daudenekin lan egin: erdaldunak, etorkinak ...*
- b. *Gazteekin eta umeekin lan egiteko jardunbide berriak sortu.*
- c. *Gurean Bai-entitateak berriz ere martxan jarri.*

Bestelako egitekoak:

- Elkartearen organigrama eta funtzionamendua berrantolatu.
- Berdintasun plana prestatu.
- Elkartea gaztetzeko plana prestatu.
- Elgoibarko Izarraren talde edo komunitate izaera landu.
- Topagunean parte hartu eta bertatik datorrenari erantzuten jarraitu.
- Bailarako eta nazioko beharrak identifikatu.

EGITEKO MODUAK:

Egiten dugunak besteko garrantzia dauka, gure ustez, egiteko aukeratzen dugun moduak. Zer egingo dugun erabakitzea ondo dago, baina zelan egingo dugun ere erabaki behar dugu. Izan ere, egiteko moduak goitik behera baldintzatzen du egiten dugunaren emaitza edota eragina. Hona hemen egiteko lau modu, eta, batez ere, lehen bietan jarri nahiko genuke azpimarra.

- Bazkideen eta herritarren parte-hartzearekin.
- Sarean, elkarrekin eta elkarrentzat.
- Baikortasun kritikoarekin (2).
- Espiritu kritikoarekin eta egiten dugunaren balorazioak eginda.

(2) *Baikortasun kritikoa*: egoerarekiko kritikoa izanda ere, etorkizuna modu baikorrean eraikitzeke hautua egiten duenaren jarrera.

ERABAKITZEKO:

Balorazio lanean bazkideen iritzi eta erantzunak irakurri ondoren, bi galdera hauei elkarte moduan erantzun behar diegula uste dugu. Gogoeta sakona eskatzen duten bi gai dira, ur sakoneko gaiak, baina heldu egin behar diegula uste dugu.

- Euskarari eta euskal kulturari lotutako gaietan bakarrik parte hartuko du Elgoibarko Izarrak, orain arte moduan, ala hasiko gara bestelako gaietan ere parte hartzen?
- Aztertuko dugu BARREN eta Atxutxiamaiak elkartetik "askatzea" mesederako izan daitekeen?

c) EGUNGO PROIEKTU ETA PROGRAMEN AZTERKETA

Etorkizunari begira gauden honetan, gaur egun martxan dauzkagun proiektu, egitasmo eta ekimenekin zer egin behar dugun erabakitzea ere badagokigu. Hona hemen proposamena:

BARREN Komunikazioak: 30 urte beteko ditu BARREN astekariak 2022ko abenduaren 24an. Astekaria izan zen hasieran. 2006an, berriz, barren.eus webgunea sortu genuen, eta handik urte batzuetara sare sozialak erabiltzen hasi ginen. Hasieran astekaria izan zena, gaur egun komunikazio proiektu bat da. Hiru adarreko komunikazio proiektua. Bistan da garapen polita izan duela. Orain, baina, komunikazio proiektuaren etorkizuna irudikatu behar dugu. Hemendik hamar-hamabost urtera BARREN zelakoa izatea nahi dugun erabaki behar dugu. Proiektuaren adar bakoitzarekin zer egin nahi dugun pentsatu eta erabaki. Bailerako gainontzeko tokiko hedabideekin badihardugu elkarlanerako aukerak aztertzen, eta argitu egin behar dugu zer egin nahi dugun elkarrekin. Proiektu estrategikoa da BARREN Komunikazioak, eta behar duen denbora eta energia eskaini behar dizkiogu bere etorkizuna aztertu eta erabakitzeko.

ATXUTXIAMAIIKA: Atxutxiamaika ere aspaldikoa da. 27 urte bete ditu aurten Elgoibarko ume eta nerabeen aisialdia euskaraz izan zedin sortu genuen proiektuak. Atxutxiamaikak ere garapen handia izan du. Oso handia. Oporretako aisialdia antolatzen hasi bazen hasieran, gerora hainbat programa eta ekintza prestatzen joan da poliki-poliki. Gaur egun zazpi programa eta beste hainbat ekintza kudeatzen ditu. Kasu honetan ere, gure ustez, gogoeta egin behar dugu Atxutxiamaikak bete behar duen funtzioaren gainean. Erabaki egin behar dugu Elgoibar herri euskaldunagoa izateko lan-prozesuan Atxutxiamaikak zer paper bete behar duen. Eta hori erabaki ondoren aztertu eta baloratu beharko genituzke gaur egungo proiektu eta programak, bakoitzarekin zer egin behar dugun erabakitzeko. Atxutxiamaikan badago, gure ustez, ondo aztertzea komeni den kontu bat: sustapena eta zerbitzuak. Gauza bat da guk Atxutxiamaikari jartzen dizkiogun egitekoak (sustapena), eta beste bat Atxutxiamaikak bete ditzakeen zerbitzuak (zerbitzu-eskariak edozeinenak direla ere).

OHARRA: Erabakitzeko atalean aitatu dugun moduan, gure ustez gogoeta egin behar dugu BARREN komunikazioak eta Atxutxiamaika Elgoibarko Izarratik askatzearen gainean.

EUSKARALDIA: 2018an izan zen hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararen erabilera areagotzea helburu duen ariketa sozialaren lehen edizioa. Elgoibarrek buru-belarri heldu zion Topaguneak egindako proposamenari eta lan ona egin genuen. Handik bi urtera izan zen bigarren edizioa, 2020an, pandemia garaian, eta hori arrazoi bakarra izan ez bazen ere, bigarren edizioaren eragina asko gutxitu zen. Uste dugu jarraitu egin behar dugula EUSKARALDIari gure onena eskaintzen. Garrantzitsua begitantzen zaigu euskara jakin eta ulertzen dutenekin euskararen erabilera handitzeko ariketak prestatzea. Badakigu EUSKARALDIA ez dela euskaldunon gaitzaren irtenbidea izango, baina laguntzen duela uste dugu. Beste kontu bat da zenbat energia eta diru eskaini behar dizkiogun bi urtetik behin ekimen horri. Hori erabaki egin beharko da.

OHARRA: EUSKARALDIA bi urtetik behin egiten den ariketa soziala da, baina EUSKARALDIA tokatzen ez den urtean ere Topaguneak badu zerbait egiteko asmoa. EUSKARALDIaren filosofiarekin bat egingo duen ekimenak izango dira, EUSKARALDIak sustatzen dituen arau sozialak jendarteratzeko ariketak. Oraingoz bat baino ez dugu egin – Haurren aurrean, helduok heldu -, baina, esan bezala, Topaguneak ideia horrekin jarraitzeko asmoa dauka. Interesgarria begitantzen zaigu, baina, aldi berean, badakigu ez dela erreza izaten urtero ekimen handi eta jendetsuei eustea.

EUSKARA ALA EZKARA: 2009an antolatu genuen estreinakoz *Euskara ala Ezkara* zikloa, Gotzon Garate hil eta urtebetera. Haren oroimenez antolatu dugu urtero zikloa, eta elgoibartarren artean euskaltasuna sustatzea izan da helburua. Lehen bederatzi edizioak aste barruan antolatu genituen, herritarrentzat ziren batez ere, baina 10. urteurrenarekin batera, 2018an, egun bakarreko jardunaldia antolatzen hasi ginen larunbatetan. Hasieran herritarrentzat zena Euskal Herri osora zabaldu da gero. Datorren urtean 15 urte beteko ditu Euskara ala Ezkara ekimenak. Beharbada, kasu honetan ere, gogoeta egin eta ekimen horrekin zer egin eta lortu nahi dugun birpentsatu behar dugu. Besteak beste, fokoa herrian, Euskal Herrian edota bietan jarri behar dugun.

TERTULIAK programa: 2001etik daukagu martxan TERTULIAK programa. Euskaraz jarduteko erraztasunik edo aukerarik ez duten herritarrek astean ordubetez euskaraz tertulian jarduteko prestatutako programa. Urrian hasi eta ekainera arte, laupabost laguneko taldeetan eta bidelagun batekin, 30 ordu baino gehiago ematen dituzte euskaraz berbetan. 30 lagunetik gora izaten dira urtero. Gure ustez eutsi egin behar diogu programari, bertan parte hartzeko prest dauden bidelagunak eta bidelariak dauden bitartean. Egin izan dugu programa indartzeko pare bat saiakera, baina beti erantzun digute daukatenarekin nahikoa dela, ez dutela gehiago behar. Hala ere, gainontzeko programen gaineko gogoeta egin behar badugu, TERTULIAK programaren gainekoa ere egin dezakegu, eta entzungo diegu zer esaten diguten.

KULTUR eskaintza: kulturgintza euskara dakitenen artean euskaldun izateko gogoia pizteko palanka edo estrategia moduan ikusten dugula aitatu dugu *Egitekoak* atalean. Eta hemen berriz ere egingo dugu azpimarra hori. Egun dauzkagun ekintzen balorazioa egin eta elgoibartarron euskaltasuna sustatzeko zer-nolako kulturgintza behar dugun aztertu beharko dugu. Eta hori, gure ustez, euskalgintzak eta kulturgintzak bat eginda pentsatu behar dugu. Izan ere, helburua bi norabidekoa da:

- Kulturgintza euskalgintzari begira jarri nahi dugu, hark honen mesedetan jarduteko.
- Baina euskalgintza kulturgintzari begira ere jarri behar da.

Finean, euskalgintza eta euskal kulturgintza batera eta norabide berean jartzea da nahi duguna. Horretarako, besteak beste, bien arteko nolabaiteko artikulazioa edo saretzea beharko dela ere irizten diogu, Elgoibarko euskalgintzaren eta kulturgintzaren LIBURU ZURIAN proposatzen zaigun moduan. Bide batez esan nahi dugu Elgoibarko Izarrak eta Udalak erabaki egin behar dutela LIBURU ZURIAREKIN zer egingo dugun. Eta, zehatzago esateko, erabaki egin behar dugu LIBURU ZURIAN datozen gomendioekin zer egin. Bi entitateek erabaki bera hartzea izango litzateke egokiena, baina hori ezin bada, bakoitzak bere erabaki propioak hartu beharko ditu.

NAZIO mailakoak: ez dira asko izaten, baina saiatzen gara Euskal Herritik datorrenari ahal dugun ondoen erantzuten. Lehen ikastolen aldeko jaietara joateko autobusak antolatzea izaten zen lanik handiena, baina hori amaitu zen, eta orain Zuberoako ikastolan aldeko saskiak, KORRIKA edota Errigora dira gurera etortzen diren ekimenak. Orain arte moduan, ahal dugun txukunen erantzutea izan behar du gure egitekoa.

EKONOMIA eta ADMINISTRAZIOA: azkenerako laga ditugu paper eta diru kontuak, baina ez garrantzia gutxien dutela uste dugulako. Administrazioari dagokionez, uste dugu oso txukun daramatzagula administrazioa, kontabilitatea eta horien bueltako zereginak. Beraz, gure ustez, atal horri dagoenetan eustea izan daiteke helburua. Ekonomiari dagokionez, zer esan. Lehen etapako militantek batek esaten duen moduan, Elgoibarko Izarrak ez duela sekula dirurik izan baina beti lortzen du behar duen beste. Bigarren etapako Elgoibarko Izarrak beste baliabide batzuekin egin ditu 31 urte. Dirua badauka, gehiegi ez bada ere, baina azpimarra, gure ustez, urteroko kudeaketan jarri behar dugu. Izan genituen urte txar batzuk TOLETXErekin jardun genuenean, baina zulo hartatik irten ginenetik elkartaren egoera ekonomikoa ona dela esango genuke. Edo balekoa behintzat. Zorrik ez daukagu eta langileok hilero kobratzen dugu agindutakoa. Soldaten gainean egin daiteke, nahi bada.

D) EGIN NAHI DUGUNAREN SINTESIA:

Herrira begira egitekoak:

Elgoibarren **euskararen erabilera areagotzea** (gune eta une informaletan, batez ere) da Elgoibarko Izarraren hurrengo urteetarako misioa. Zeintzuk dira horretarako proposatzen ditugun **estrategiak?**

- Elgoibarko **euskalgintza eta kulturgintza artikulatzea**.
- Euskara dakitenen artean **euskaldun izateko nahia** elikatzea:
 - Kulturgintza eta euskalgintza **batera eta norabide berean** landuz.
 - Kontzientzia edota motibazioa landuz: **formazioa, dibulgazioa eta ahalduntze-eskolak**.
- **Proiektu berririk** behar den erabakitzea.
- **Martxan dauden proiektuekin** zer egin erabakitzea.
- **Topagunetik eta bailaratik** datorrenari erantzutea.

Elkarte barrura begirako egitekoak:

- Elkartearen **organigrama eta funtzionamendua** berrantolatu.
- Elgoibarko Izarraren **komunikazio proiektua** idatzi.
- Elkartearen **pentsamendua edota diskurtsoa** idatzi.
- **Berdintasun plana** prestatu.
- **Elkartea gaztetzearen** gaineko gogoeta egin.
- **Elgoibarko Izarraren talde izaera** lantzeko gogoeta egin.

Etorkizuneko **egiteko moduak**: bazkideen parte-hartzearekin, sarean, elkarrekin eta elkarrentzat, baikortasun kritikoarekin, egiten dugunaren balorazioak eginda ...

Aurretik esan bezala, gerorako laga gabe **erabaki behar dugu**:

- Euskarari eta euskal kulturari lotutako gaietan bakarrik parte hartuko du Elgoibarko Izarrak, orain arte moduan, ala hasiko gara bestelako gaietan ere parte hartzen?
- Aztertuko dugu BARREN eta Atxutxiamaiaka elkartetik "askatzea" mesederako izan daitekeen?

E) GOGOETA: Elgoibar herri euskaldunagoa izateko ideia batzuk

Euskaltzaleon Topaguneak aurtengo Topaldirako eskatu zidan lan baten aitzakian idatzi nuen dokumentu hau. Elgoibarko euskalgintzaren eta kulturgintzaren egoeraren diagnosis jasotzen duen Liburu Zuriaren gainean jarduteko eskatu zigun Topaguneak. Gorka Arresek eman zuen lan horren berri. Nik, berriz, hemendik aurrera Elgoibarren egin beharko genukeenaren gaineko gogoeta partekatu nuen bertan bildutako jendearekin. Nik egindako gogoeta dator segidan.

(Imanol Larrañaga Juaristi)

EGITEKO NAGUSIAK

Euskaraz dakitenen artean euskaldun izateko nahia piztea.

Gero eta beharrezkoagoa begitantzen zait euskaraz dakitenei euskaldun izateko nahia pizteko beharra. Gero eta gehiago gara euskaraz dakigunok, baina ez dakit neurri berean egiten duen gora euskaldunen kopuruak. Ezetz esango nuke. Euskaraz jakitea ez baita nahikoa, nire ustez, euskalduna izateko. Ezinbestekoa bai, baina ez nahikoa.

Gurea euskaraz dakien herri erdalduna dela entzun edo irakurri nion baten bati. Zer pentsatua eman zidan. Euskaraz dakien herri erdalduna.

Kulturgintza eta euskalgintza batera eta norabide berean lantzea izan daiteke euskara dakitenen artean euskaldun izateko nahia pizteko bide edo estrategia bat. Ikus dezagun zergatik diodan hori.

Euskalgintza eta kulturgintza batera eta norabide berean lantzea.

Euskalgintza eta kulturgintza batera eta norabide berean lantzea, jendearen artean euskaldun izateko nahia pizteko estrategia edo aukera moduan. Euskalgintza kulturgintzaren mesedetan eta alderantziz. Izan ere, zenbat eta euskaltzaleagoak izan, orduan eta kulturzaleagoak izango gara. Eta zenbat eta kulturzaleagoak izan, orduan eta euskaltzaleagoak. Bai norbanako moduan eta baita herri moduan ere.

Aspaldi entzun edo irakurri nion Jon Sarasuari kulturgintzak euskalgintzaren energia-iturri izan behar duela. Txerta dezagun kulturgintza euskalgintzaren zainetan! Pentsatu beharko dugu hori zelan egin daitekeen. Joan beharko dugu euskalgintza eta kulturgintza uztartzen dituzten herri-esperientziak ezagutzera. Joan eta ikusi. Eta entzun. Eta ikasi. Eta ikusi eta ikasitakoa gurera ekarri. Gure neurrira eta nahieran egiteko.

Kulturgintza eta euskalgintza batera eta norabide berean lantzea baldin bada euskaldun izateko nahia pizteko bide bat, bestea euskaldun izatearen kontzientziaren lanketa izan daiteke.

Euskaldun izatearen kontzientziaren lanketa.

Kontzientziarik gabeko euskararen ezagutza edota erabilera hauskorrak begitantzen zaizkit. Sustrairik gabekoak.

Nerea Ibartzabalek *Euskara ala Ezkara ertzetan?* jardunaldian eman zigun horren adibide bat. Elgoibarko Aiastia auzoko baserri batean jaiotakoak dira Nerearen ama eta bere anai-arrebak. Baserrian bizi izan ziren artean euskara baino ez zen entzuten etxe hartan. Gerora, baina, baserritik irten eta batera eta bestera bizitzera joaten hasi zirenean, eta, batez ere, gurasoak hil zirenean, gaztelaniaz egiteko joera nagusitzen hasi zen poliki-poliki. Aitarean anaia batek, berriz, Ameriketara joan eta euskararen transmisioa eten egin zuen bere etxean. Lehengusuekin ingelesez berba egiten du Nereak.

Kontzientziarik ezean, erabileraren haria errez eten daitekeela esan nahi zigun Bizkaiko bertsolari txapeldunak. Euskararen ezagutza eta erabilera kontzientziarekin jantzi behar ditugula, ahal dugun kasu eta leku guztietan.

Horretarako, besteak beste, formazioa, dibulgazioa eta ahalduntze-eskola sustatu behar ditugula uste dut:

- **Formazioa:** biziko bagara jantzi beharra daukagulako, AED-k bere garaian argitaratzen zuen JAZTEN aldizkarian gogorarazi zigun moduan.
- **Dibulgazioa:** elkarteko bi bazkidek duela gutxi esan zidaten haien euskaldun izateko nahia Xamarrekin piztu zela. Euskal kultura tradizionalaren gainean Xamarrek emandako 20 orduko ikastaroan jabetu zirela euskaldun izateak zer esan nahi duen.
- **Ahalduntze-eskola:** ahalduntze-eskolaren ideia Txerra Rodriguezi harrapatu diot bete tesi lanetik. Ez dakit nork, noiz eta nola, baina euskalgintzaren ahalduntze-eskola prestatu edo sortu behar du euskalgintzak (feminismoak berea sortu zuen moduan).

Zergatik?

- Jende ahaldundua behar dugulako.
- Entitate ahaldunduak.
- Agintari edo politikari ahaldunduak.
- Hizkuntza-komunitate ahaldundua.

Zertarako?

- Pentsatzen duguna esateko.
- Esaten duguna sinesteko.
- Sinesten duguna egiteko.
- Egiten duguna sinesteko.
- Egunen batean, izan nahi duguna izateko.

EGITEKO MODUA

Sarean egin behar dugu.

Sarean antolatu eta sarean egin behar dugu derrigorrean. *“Bakoitzak urraturik berea, denon artean geurea”*, Laboak esan zigun moduan. Bakoitzak berean badihardugu, eta ondo samar dihardugula esango nuke, eta jarraitu behar dugu horretan, baina denon artean geurea egitea falta zaigu.

- Herri moduan pentsatzeko.
- Herri moduan erabakitzeko.
- Herri moduan egiteko.
- Batera eta norabide berean egiteko.

Bat bagina moduan. Ez dakit bilgunea den sortu behar duguna. Mahai baten bueltan eseri behar dugun. Elgoibarko Euskararen Kontseilua den irtenbidea. Ez dakit, baina bat egingo gaituen zerbait behar dugu.

Elkarrekin eta elkarrentzat.

Enekoitz Esnaolak Lazkaon eman zuen hitzaldi baten kartelean irakurri nuen estreinakoz *“elkarrekin eta elkarrentzat”*. Zer pentsatua eman zidan. Elkarrekin eta elkarrentzat.

Elkarrekin ezagunagoa da, nahi baduzue. Izan ere, euskalgintzatik sarri jotzen dugu hara eta hona elkarlan eta aliantzen bila. Baina, **elkarrentzat** irakurtzeak atentziora eman zidan. Zerbait berria esan nahi zuenaren susmoa hartu nion. Izan ere, euskalgintzatik zenbat aldiz joan gara inorengana zerbait nahi duen galdetzera? Zenbat aldiz jardun dugu elkarrentzat?

ELGOIBARREN ARTIKULAZIOA DA AZKEN HELBURUA

Arestian esan moduan, euskalgintza eta kulturgintza artikulatuz has gaitezke sarea ehuntzen, baina sarea handitzeko bokazioarekin izan behar duela uste dut.

Beharbada gure helburuak euskalgintza eta kulturgintza artikulatzea baino zerbait sakonagoa izan behar du. Elgoibar artikulatzea, txirikordatzea edo saretzea izan behar du gure azken helburuak: euskalgintza, kulturgintza, industria, merkataritza, nekazaritza, bestelako gizarte-mugimenduak ...

Euskalgintza herrigintzaren atariko moduan ere irudika dezakegu. Elgoibar justu eta hobe baten alde egiteko lehen urrats moduan. Finean, Elgoibar denok hobeto eta gusturago biziko garen herria izatea izan daiteke gure ametsa. Euskaratik eta euskaraz, baina bestelako leiho eta ateak zabalik ditugula.